

Hezkuntza Sailak eskola segregazioa areagotzen duten neurriak bultzatzen ari da, segregazioaren kontrako mahaian bestelakoak esaten dituen arren

Jaurilaritzak gauza bat esan eta kontrakoa egiten du hezkuntza politikari dagokienean. Izan ere, irailaren 8an, lehendakariak berak segregazioaren kontrako mahaia aurkeztu zuen eta hezkuntza sistemak ekitatea eta inklusioa oinarri izan behar direla adierazi zuen, baina kontrako norabidean doazen politikak bultzatu ditu aste honetan matrikulazio biziaren banaketari lotuta, Gasteizen.

Aurreko urtean matrikulazio biziaren bitartez 8.000 ikasle eskolaratu ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetan, eta aurten, ikasturtea hasi berri dagoenean, epez kanpoko ikasleak iristen eta eskolaratzen hasi dira. Alta, Hezkuntza Sailak orain arteko praktika segregatzaileekin jarraitzeko hautua egin du, eta eskola planifikazioan inolako erabakirik hartu gabe zein matrikulan doiketarik egin gabe, ikasturte hasieratik 40 ikasletik gora matrikulatu ditu Gasteizko bi eskola publikotan. Ikasle horietako 13, gutxienez, Kristau Eskoletako ikastetxeetara bideratu dituzten arren, ezin izan dira bertan matrikulatu itunpeko ikastetxe horietan kuotak ordaintzea eskatu dietelako. Ondorioz, eskola publikoak hartu behar izan ditu, beste behin ere, era masiboan ikasle horiek, eta irakasleek zein hezitzaileek haien onena eman zein baliabide gehiago lortu arren, ikasleen hezkuntza prozesua kaltetu du. Batean berariazko hezkuntza laguntza premiak dituzten ikasle kopuruen pilaketa gertatu da.

Badirudi, beraz, Hezkuntza Sailak ez daukala hezkuntza politikak aldatzeko inolako borondaterik; egoeraren jakitun izateaz gain, egoeraren diagnostikoa eginga baitu tokian toki. Alta, oraindik orain ez du neurri zuzentzailearik ezarri eta ez du inolako jarraipenik egin Kristau Eskola horiek legez debekaturik dituzten derrigorrezko kuota horiek ez inposatzeko eta kobratzeko.

Hortaz, LABek Hezkuntza Sailari exijitzen dio Gasteizko egoeraren aurrean urgentziazko esku-hartzea egin dezan, ikuskaritzaren bitartez Kristau Eskolako itunpeko ikastetxe horiei kuoten kobrantza kontrolatzeko eta debekatzeko, eskola planifikazioari lotuta gain-eskaintza mugatzeko eta Hezkuntza Konplexutasun Indize altukoak edo oso altukoak diren ikastetxeetan hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleen kontzentrazioa ez egiteko, ezta bultzatzeko ere.

Bide batez, D ereduak den eskola publikoaren aldeko apustu garbia egin dezan eskatzen diogu, hezkuntza-politiken erdigunean berau jarritz eta babestuz. Eta LABek gizarte kohesioa hezkuntza-politiken printzipio gidari izan dadila aldarrikatzen du, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrietan egon daitezkeen askotariko errealitateen aurrean, sare ezberdinei eragiten dien errealitatea pixkanaka eraldatzeko.

El Departamento de Educación está impulsando medidas que incrementen la segregación mientras en la mesa contra la segregación dice otras cosas

El Gobierno Vasco dice una cosa y hace la contraria en lo que respecta a las políticas educativas. Y es que, a pesar de que el propio lehendakari señaló el 8 de septiembre en la presentación y puesta en marcha de la mesa contra la segregación que el sistema educativo debe tener como base la equidad y la inclusión en el sistema educativo, esta misma semana ha impulsado políticas que van en la dirección contraria ligadas al reparto de la matriculación viva en Gasteiz.

El año pasado el alumnado escolarizado mediante la matrícula viva fue de 8.000 en los centros educativos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa; y este año, recién comenzado el curso escolar, ha comenzado a llegar alumnado fuera de plazo que está siendo escolarizado. Sin embargo, el Departamento de Educación ha optado por continuar con las prácticas segregadoras de hasta ahora y, sin tomar ninguna decisión en la planificación escolar, ni hacer ningún ajuste en la matrícula, desde el inicio del curso ha matriculado a más de 40 alumnos y alumnas en dos escuelas públicas concretas de Gasteiz. Pero es que al menos 13 de estos alumnos y alumnas han sido derivados de centros concertados de Kristau Eskolak que no han podido matricularse en ellos al exigirles el pago de cuotas. En consecuencia, la escuela pública se ha visto obligada una vez más a acoger masivamente a este alumnado, y aunque el profesorado y el personal de educación especial con su trabajo aportan lo mejor de sí mismo y se hayan obtenido más recursos, se ha perjudicado el proceso educativo del alumnado. Porque de repente se ha producido un aumento considerable del alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo.

Parece, por tanto, que el Departamento de Educación no tiene ninguna voluntad de cambiar las políticas educativas, ya que además de ser consciente de la situación, tiene hecho un diagnóstico de la situación a nivel municipal. Sin embargo, todavía no ha implantado ninguna medida correctora y no ha hecho ningún seguimiento para que esas cuotas que están prohibidas por ley no las impongan ni cobren los dichos centros de Kristau Eskolak.

Por lo tanto, LAB exige al Departamento de Educación que realice una intervención urgente ante la situación de Gasteiz para que, a través de la inspección, se controle y prohíba el cobro de cuotas a estos centros concertados de Kristau Eskolak, se limite la sobreoferta en relación con la planificación escolar y se evite e impulse la concentración del alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo en centros con Índice de Complejidad Educativa alto o muy alto.

De paso, LAB le pide que haga una apuesta clara por la escuela pública del modelo D, situándola en el centro de las políticas educativas y apoyándola. Y, por último, LAB reivindica que la cohesión social sea el principio rector de las políticas educativas, para poder transformar progresivamente las múltiples realidades que existen en los pueblos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, una realidad que afecta a las diferentes redes.